

# Garbiñe Aranburu LABeko idazkari nagusigaia

## “SINDIKATUAK ERAGINKORRAK EZ GAREN IDEIA NAGUSITZEA, SEKULAKO GARAIPENA LITZATEKE KAPITALISMOARENTZAT”

LABeko Negoziazio Kolektiboko eta Ekintza Sindikaleko idazkaria da Garbiñe Aranburu (Legorretan sortu zen 1973an, Zaldibian bizi da egun). 2004tik dabil sindikatuko Batzorde Exekutiboan eta zuzendaritzak idazkari nagusi izateko proposatu du orain, Ainhoa Etxaideri lekukoa hartuta. Maiatzaren 25 eta 26an Gasteizen LABek egingo duen IX. Biltzar Nagusian hala hautatuko dute, dena ondo bidean. “Keinu bat egin nahi nioke han egon ezin izango duen Rafa Diezi”, esan digu elkarrizketa amaieran.



**Urko Apaolaza Avila**

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: DANI BLANCO

### Ainhoa Etxaideren hitzetan, idazkari nagusi izatea ez da “opari bat”.

Oso kontziente naiz, erantzukizun handia da. Bertigo apur bat ematen du baina era berean ilusionatuta nago garai berria dugulako aurretik, hain zuzen ere lelo hori jarri diogu kongresuari.

### Sindikatu “berri” bat uzten duela zioen baita ere Etxaidek. Zertan aldatu da LAB?

Lan harremanak asko aldatu dira azken urteetan, eta eraginkortasun krisi batean egotetik sindikalgintza berriro ere erdigunean jartzeko urratsak emateko *Birpentsatzen* prozesua jarri genuen abian.

### Zer ondorio atera zenuten?

Sindikalgintzak erronka berriak ditu: inoiz baino beharrezkoagoa da, baina inoiz baino bitarteko gutxiago ditu. Negoziazio kolektiborako eskubidea erabat deuseztatuta geratu da eta langileak ahulduta. Langile klasea berrosatu behar da, baina horretarako ezinbestekoa da ekintza sindikala berritzea, soldatapekoei ez ezik kolektibo guztiei erantzutea.

### Zuzendaritzaren ponentzietz gain ez da besterik aurkeztu. Sindikatu barruko aniztasun faltaren seinale ote?

Sindikatu ondo eta kohesionaturik dagoen seinale da. Bi ponentzietz emendakin kopuru handia izan dute eta hor ikusten da aniztasuna. Oso prozesu parte-hartzailea izan da; aplikazio bat ere sortu dugu horretarako eta egia esan espero genuena baina hobe joan da.

### Horretan ere gauzak aldatu dira: teknologia berrien erabilera antolakuntza eta komunikazioaren eremuan.

Garbi dugu egokitu behar dugula langile eta afiliatuekin *feedback* hori lortzeko. Baina langileekin harreman zuzena izateak ere garrantzia dauka eta aukera handia daukagu lantegian haiekin aurrez aurre egoteko; lanketa ideologiko sakonagoa egin dezakegu elkarrekin.

### Ekintza sindikalaren garrantzia aipatu duzu; “ekintza sozialerako egitura” sortu duzue horretarako... zer da?

Sindikatu guztiak sortu izan dira gizo-

nezko lan munduaren errealtate bati erantzuteko. Gaur egun ordea lana bere osotasunean aitoritzen dugu: lan erreproduktiboa, beste kolektiboak, eredu alternatiboak... Federazioen bidez zuzendaritzatik lantokietaraino egitura-tuta gaude, baina arlo sozialean ez dugu herrietara eramango gaituen egiturarik.

Honekin aukera izango dugu beste aliantza batzuk sustatzeko. Hor dugu adibidez Karta Soziala herrietara eramateko erronka, askotan abstraktuan geratzen baita.

### Nolanahi ere, langile prekarioak euren kabuz ari dira antolatzen, dela ekonomia eraldatzailean, dela *Las Kellys* moduko mugimenduetan. Zuek ere antzeman duzue sindikatuekiko “desafekzioa”, nola eman buelta horri?

Prekarizatze prozesu orokor bat bizi dugu lan-erreformen bidez, eta aldi berean negoziazio kolektiboa ukatzen dugu. Horren erantzukizuna gure bizkar utzi nahi dute gainera, sindikalgintzaren funtzioa auzitan jarriaz: eraginkorrak ez



garela dioen ideia hori nagusituz gero sekulako garaipena litzateke kapitalismoarentzat. Prekaritatea ez dugu guk sortu, baina ezin gara konformismoan erori; horregatik errealtate berri horiek guztiak aliatu gisa ikusten ditugu.

**“Berdina egiten jarraitzen badugu, emaitza berdina izango da”, zenioen Durango-ko ekitaldi batean.**

Negoiazio kolektiboarekin nabarmen ikusten da: negoziazioa enpresetara eraman da eta milaka langile kanpoan geratu dira, geroz eta jende gutxiagok duelako enpresetan negoziatzeko aukera. Enpresetako negoziazio ahalik eta gehien irabazi behar ditugu noski, baina ekintza sindikala beste kolektiboetara ere zabaldu behar dugu. Bestela, eraginkortasun ezaren zama etorriko zaigu bizkar gainera.

**Eta nola egiten da hori?**

Aldarrikapen batzuk garbi ditugu: 1.200 euroko gutxieneko soldata, 35 orduko lan-astea, aukera berdintasuna... Hori guztia agenda politikoan kokatzeko bo-

rrokatu behar dugu, interpelazio politikoan sakondu. Baina interpelazioaz gain, politika publikoetan eragiteko markoa ere behar dugu, zeren eta Lan Harremanen Kontseilua edo elkarrizketa sozialeko mahaia patronalaren neurrira eginda daude, ez dute balio benetako elkarrizketa baterako.

**Alternatibak bilatze aldera, ELArekin balioko aliantza giltzarrietako bat izan daiteke agian?**

Azken urteetan nahiko urrun izan gara, baina balio handia ematen diogu aukera horri. Kapitalarekin dugun borrokan eta burujabetza prozesuan aurrera egiteko ELA aliatu garrantzitsua da.

**Negoiazio kolektiboan diferentziak izan dituzue orain arte...**

Adostasunak bilatzen saiatu behar dugu esparru politikoan, sozialean eta sindikalean. Nekez pentsa liteke burujabetza prozesua hauspotuko dugunik negoziazio kolektiboan elkar joka bagabiltza, nahiz eta esparru autonomoak izan.

*“ELArekin adostasunak bilatzen saiatu behar dugu esparru politikoan, sozialean eta sindikalean. Nekez pentsa liteke burujabetza prozesua hauspotuko dugunik negoziazio kolektiboan elkar joka bagabiltza”.*

**ELAk LABen izaera “instrumentala” kritikatu izan du. Zer harreman izan beharko luke zuen sindikatuak ezker abertzaleko beste erakunde politikoekin?**

LABek autonomia osoa dauka. Batzuetan badirudi sakoneko eztabaidan ez sartzeko jartzen duela ELAk hori mahai gainean. EH Bilduk hartutako erabaki batzuk kritikatu izan ditugu, baina ezin dira behin eta berriz alderdi politiko guztiak parekatu, eta ez dira gauza bera EAeko gobernua edo Nafarroakoa. Sindikatua ezin da mugatu kritikara edo exijitzera: guk ere inplikatu eta busti behar dugu. Eraldaketa soziala bultzatzen dugun neurrian, badagokigu proposamenak aurkeztea eta proiektu politiko horrekin bat egiten dutenen arteko aliantzak sustatzea.

**INAKIBEREZIARTUA**

**ENBALAJEAK  
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA  
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze  
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75  
Hernani (Gipuzkoa)  
☎ 943 552 828  
[www.inakibereziartua.com](http://www.inakibereziartua.com)  
mjm@inakibereziartua.com



**TALLERES  
MITXELENA  
S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua**

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 · F 943 55 28 16  
info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

**Burujabetza prozesuak aldebakarrekoa izan behar duela diozue, eta horretarako argi eduki behar dela estrategia sozioekonomiko bat.**

Ezker esparru batzuetatik burujabetzaren eztabaida erlatibizatzen joera dago: “Zertarako estatua eduki kapitalaren diktadurapean bizi bagara? Begira Grezia...”. Gure ustez estatuak ematen dizkigu bitarteko gehien egungo eredu neoliberalaren alternatiba eraikitzen. Baina hori izan bitartean egunerokoan borrokatu behar dugu; estrategia sozioekonomikoak burujabetza prozesuaren ardatza izan behar du.

**Baina desblokeatu daiteke negoziazio kolektiboa aldebakartasunetik?**

Horretan saiatzen ari gara, beste modu bateko ekintza sindikalarekin. Desobediencia eta konfrontazio demokratikoari garrantzia gehiago eman beharko genioke.

» “Jaurlaritza Confebask ari da babesten, zergatik? EAJk PPrekin Espainiako aurrekontuez egin berri duen akordioa bide beretik doa: proiektu ekonomiko bera dutelako”

**Confebaskekin akordio intersektoriala egin zenuten sindikatuek. Zertan da?**

Marko propioa blindatzeko balio izan zuen, baina hitzarmenak ez dira desblokeatu, aurreikusi genuen bezala Confebask ez dagoelako klabe horietan. Bitartean, CCOO eta UGT estatuan hitzarmenak sinatzen ari dira eta hemen negoziazio kolektiboaren “salbatzaile” bezala agertzen dira.

**Sindikatu horiek, patronalak eta Eusko Jaurlaritzak gutxiengoan hitzarmenak sinatzeko akordioa “antidemokratikotzat” jo duzue.**

Larria da gertatzen ari dena. Confebaskek bere ordezkariak patronala –nahiz

eta inoiz neurtua ez izan– baliatzen du negoziazio kolektiboa blokeatzeko; berak eskatu zuen ELA eta LAB sindikatuen erregistrotik kanpo uztea; eta orain gutxiengo sindikalari kobertura ematen dio gure aurka egiteko. Jaurlaritza hori ari da babesten, zergatik? EAJk PPrekin [Espainiako aurrekontuez] egin berri duen akordioa bide beretik doa: Confebasken proiektu ekonomiko bera duelako. CCOO eta UGT estrategia horren txotxongiloak dira.

**LAB ere haiekin eseri zen 2013an, Espainiako lan-erreformak zirela-eta.**

LABen lehentasunezko borroka izan da bertako negoziazio eremua blindatzea, horregatik saiatu ginen akordio interprofesionala erdiesten. CCOO eta UGT ez ditugu baztertzeko, gehiengo sindikalak ematen badu eta edukiak baldin badaude... 2013an ez zen posible izan, Confebaskek berak ezetz esan ziolako Urkulluri. Baina oraingoak ez du zerikusirik, ELA eta LABen kontra beste urrats bat eman nahi izan da.

**Estatalizazioaz, Oiartzungo Carrefourreko langileen kasua dugu adibide: hitzarmena Madrilgo negoziatzearen kontra azaldu dira, baina “elefante” bat mugitzea bezala dela diote. Akordio orokorrik ez eta enpresan negoziatzeko indarririk gabe, nola egin aurre joera horri?**

Oiartzungo Carrefourreko langileek hartutako bidea txalagarria da. Tokian tokiko borroka ezinbestekoak dira, batzuetan zailtasunak egongo dira, baina horien bidez ari gara akordio orokor baterako oinarriak jartzeko. Nolanahi ere, uste dut Oiartzunen emaitzak izango dituztela, borrokatzeak beti ematen ditu emaitzak.

**Bilgune Feministaren azken topaketetan, Saioa Iraolak esan zuen trantsizio feministarako “lidergotza kolektiboa” behar ditugula. LABek zuzendaritza parekidea izango du, eta nolako lidergotza?**

Hala nahi dugu, kolektiboa izatea, ez hain zentratua idazkari nagusiaren figuran. Datorren ikasturora begira ari gara pentsatzen bozeramaila bikoitza izatea. Hala ere, zuzendaritza parekidea da, baina bistan da horrek ez duela bermatzen praktika feministan urratsak ematea. Harago joateko momentua da eta barne mailan erabakiak hartzen ari gara sindikatu guztian nabaritu dadin. ■